# 828/1995 Errege Dekretua, maiatzaren 29koa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onetsi duena

**(EAO, 1995. urteko ekainaren 22koa)**

**11. artikulua. Eskualdaketekin parekatutako egintzak**

**1.** Zerga likidatu eta ordaintzeko ondorioetarako, ondare-eskualdaketak izango dira:

A) Zorren ordainean nahiz zorrak ordaintzeko egindako adjudikazioak. Zorrak ordaintzeko egindako adjudikazioen kasuan, adjudikaziodunek egiaztatzen badute hartzekodunari eskualdatu dizkiotela, bi urteko epean eta haren kreditua kitatzeko helburuarekin, adjudikatutako ondasunak edo eskubideak eurak, adjudikazio horien ondorioz ordaindutako zerga itzultzea eskatu ahal izango dute; orobat, adjudikaziodunek egiaztatzen badute, helburu berberarekin eta epe berdinean, ondasunok hirugarrenari eskualdatu dizkiotela.

B) Aitortutako adjudikazio-gaindikinak, salbu eta gaindikin horiek gertatzen direnean Kode Zibilaren 821, 829, 1056 (bigarrena) eta 1062 (lehenengoa) artikuluetan xedatutakoa betetzeko, edota foru-zuzenbidearen xedapenak betetzeko, xedapen horien oinarria berbera izanik.

(…)